

PLaza

» **44 ■ Mixel Thikoiperen 'Hotz Bero' kalean**
Munduko istorioak Amikuzera ekarrita, bere lehen liburuak argitaratu du idazleak: 18 ipuineko bilduma.



Juan Bas, Fernando Rey eta Miren Agur Meabe, atzoko sari banaketan, nor bere garaikurrarekin. JUANAN RUIZ / ARCAZKI PRESS

Atzera begira, etorkizun sendoa

Euskadi sariak jaso dituzte Meabek, Reyk eta Basek; beste sariduna, Montoia, ez zen izan ekitaldian

JON REJADO
Gasteiz

Atzera begira. Horrela hasi zen 2007ko Euskadi literatura sarien banaketa. Koldo Mitxelena hitzek hasiera eman zioten ekitaldiari, orain dela hogeitazenduzen hizkuntzalariaren omenez. Hala literaturaz jantzi zen Lehendakariak egoitza euskal literaturaren orainari omenaldia egiteko. Lau idazleren sormena eta lana saritzeko. Miren Agur Meabek, Fernando Reyk eta Juan Basek Juan Jose Ibarretxeren eskutik jaso zituzten *Idazle zuhaitza*, Mari Puri Herrero artistak egindako eskultura. Xabier Montoia izan zen saria bertan jaso ez zuen bakarra.

Atzera begiratu zuen Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak Euskadi literatura sarien garrantzia gogora ekartzeko. 2007an hamaika urteurren ospatu behar izan dituela nabarmendu zuen eta atzo banatu zen saria horietako bat da. 25. urteurrena, alegia. «Egia da orain dela hamar

urte aldeketa sakona izan zuela, eta gaur egun ere aztertzen ari gara nola aldatu eta nola hobetu», aurreratu zuen. Sariak banatzea ohitura bihurtzetik urrun dagoela nabarmendu zuen. Etorkizunera begirako helburuak lortzeko «tresna eta baliabide bikaina» dela azpimarratu zuen. «Liburuak irakurria izateko du zor. Idatzitakoak irakurleak behar ditu, eta, zubi lan hori egiteko, sortuak dira sari hauek».

BIGARRENA MEABERENTZAT. Bost urteren buruan itzuli zen atzo Miren Agur Meabe Euskadi literatura sarien agertokira. 2002. urtean jaso zuen lehenengoz haur eta gazte literatura saria, eta *Urtebete itsasargian* lanarengatik jaso du bigarre-na. «Idazle sentitzen lagundu ninduen sariak orain dela bost urte, eta oraingoan sariak dozenaka egogoratu zuen, eta atzo jaso zuen bigarre-na, opari bat. «Ez nabil perfekzio bila, edertasun bila baizik».

Jaioterriari, Lekeitiiori, «beste ama fisiko eta sentimental horri» eskaini zion saria. «Garraitzeta

odolak eta isiltasunak isildu ez duten oroimen baten metafora da, historiaren gorabehera aurre egiten dion herri zail baten eta hizkuntza eder baten metafora da».

Literatura itzulpengintzari dagokion saria jaso zuen Fernando Reyk, *Pereirak dioenez* itzulpen lanarengatik. Haren ametsen berri emanez jaso zuen saria. «Orain dela bost urte nekez asmatuko nuen hemen egon nintekeenik ere, baina, amets egiten hasita, nahia-go izan nuen nire Nafarroaren

«Lagun askoren zorion mezuak ekarri dizkit sari honek, eta hori da saririk sakonena»

MIREN AGUR MEABE
HAUR ETA GAZTE LITERATURAKO EUSKADI SARIDUNA

«Amets egiten hasita, nahia-go izan nuen nire Nafarroaren presidentek saria ematea»

FERNANDO REY
ITZULPENGINTZA ALORREKO EUSKADI SARIDUNA

«Aldaketak izan ditu sariak, eta gaur egun ere aztertzen ari gara sariak nola aldatu eta nola hobetu»

MIREN AZKARATE
EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILBURUA

presidentek ematea itzulpen onaren saria».

Gurasoei eskerrak eman zizkien Reyk, lehenik eta behin. Amak Erriberri mediku bezala ikustea nahia-go izango zuela adierazi arren, itzulpengintzari eskerra eman zizkion. «Hainbat bizitza salbatu ditu itzulpengintzak, despistatua naizenez baten batekin bukatuko nuen eta». Aitari ere eskerrak eman zizkion eta haren irakaspenak azpimarratu zituen, baina, horren gainetik euskararekin izan zuten jarrera irekia esker-tuzien. «Ez litzateke hori gutxi izan Nafarroako hizkuntza politikarako; gauzak nola dauden ikusita agian gure aita nekazari jakintsua da Euskararen Nafarroako Instituturako aurkitzen ez duten zuzendari egokia».

Antonio Tabucchi *Sostiene Pereira* jatorrizko liburuaren idazle-ari eta Igela argitaletxeari esker-rrak eman zizkien bestetik. «Euskal Herriko faunaren animalia asko daude, eta horien artean espezie txiki bat dago babestu beharrekoa, igela».

Gaztelania ama hizkuntza duen arren, hizkuntza horretan bizi-tzan esan zaizkion gauzarik ederrenak entzun dituen arren, euskararekin maitemindu zela onartu zuen testigantza idatzi baten bitartez. Aspaldian beste hizkuntza batzue-

tan esaten diren gauza ederrak euskarara ekarri ere gozatzen duela nabarmendu zuen.

Voracidad (Irentsi nahia) lana-rengatik jaso zuen Juan Basek gaztelaniazko literaturari dagokion saria. Liburuaren tituluari eutsi zion harekin esan nahi izan duena gogoratzen. Irentsi nahia janariarekin lotuta, ekonomiarekin lotuta, politikaren boterearekin lotuta, aberri guztiekin lotuta, kontsumoa, buruberoeria... «Minak behartzen duen erokeria irensteko nahia; irentsi nahi horrek lagarrikari-rik harago dagoen mendeku bat egitera behartzen du nire lanaren protagonista bat».

Xabier Montoia ez zuen atzo saria jaso, horrelako ekitaldietara ez joateko ohitura duelako, baina bertan zeudenen txalo zaparrada jaso zuen.

SORMENAK, HIZKUNTZAK BATU. Sari-tuen sorkuntza lanarekin gozatze-ko deia zabaldu zuen Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako le-hendakariak. «Sormenaren hiz-kuntzaren baitan munduko hiz-kuntza guztiak biltzen dira eta ber-dinak egiten dira». Mitxelena-ren hitzak gogoratu zituen, euskara eta gaztelania Euskal Herriko hiz-kuntzak direla diotenak, eta bi hiz-kuntza horietan egindako lana sa-ritzea helburua dutela Euskadi li-teratura sariak. Beste lau dira, atzoz geroztik, sari horien jabe.